

ARIKETA

ZUZENDUAK



CE1-CE2



AGENCE DE L'EAU
ADOUR-GARONNE

ETABLISSEMENT PUBLIC DU MINISTRE
DU DEVELOPPEMENT DURABLE






URA ETA URAREN ZIKLOA



20 . . ko _____

1

Planisferioari beha iezaiozu.



● Lurren eta ozeanoen hedapena konpara itzazu.

Ozeanoen hedapena lurrarena baino aise handiagoa da.

2

Taula hau osa ezazu gurutzeak ezarriz:

	SOLIDOA	LIKIDOA	GASA
Hodeia			
Elurra			
Lainoa			
Izotz mokorra			
Lurruna			

3

Zer kolore ematen zaio Lurrari?
Esplika ezazu zergatik.

*Ozeanoen hedapena lurrarena baino aise handiagoa da.
Jakin behar da itsaso eta ozeanoen urek planetaren azaleraren % 70 estaltzen dutela.
Ura urdin agertzen delako, urdina da Lurrean nagusi den kolorea.*



4 Hitz egokiak hutsuneetan idatz itzazu.

elurra – izotza – lurruna – elur-blokeak


Igluen eraikitzeko, inuitek *elur-blokeak* baliatzen dituzte.

Hotz handia egiten duenean, *izotza* bada bideetan.

Kazolako urak irakiten duelarik, *lurruna* ateratzen da.

Eskiatzeko, *elurra* beharrezkoa da.


5 Eskemei begiratu, saihetseko galdeei ihardets:



kazola



izotz-mokorren ontzia



baso bat ur

Zure ustez,
beroena zein da?

kazola

hotzena zein da?

Izotz mokorrak

Zer bilakatuko dira izotz-mokorrak izozkailutik kanpo atxikiz gero?


Hotzetik kanpo atxikiz gero izotz-mokorrak urtuko dira.



20 . . ko _____

1

Marrazki hauek deskriba itzazu testu labur bat eginez:



basamortua



baserria



oihan ekuatoriala

● Basamortua:

Ur eskasia eta landare guti den eremu arras zabala. Basamortuetan maiz harea dago lurrazalaren orde.

● Baserrialdea:

Gure eskualdeetako paisaia, landaredia aberatsa eta ugaria. Ura aurkitzen da ur-bideetan, urmaeletan. Oihan eta elgeek osatzen dute baserriko paisaia.

● Oihan ekuatoriala:

Ekuatoreari hurbil diren eremu hezeetan kokatzen da oihan ekuatoriala. Landaredia izugarri aberatsa da eta animalia anitz aurki daiteke.

Hiru paisaia horiek hezeenetik idorrenera sailka itzazu.

1. Oihan ekuatoriala
2. Baserria
3. Basamortua



2

Lurrean bizi diren animaliak gorriz ingura itzazu;
urean bizi direnak urdinez;
urean edo berdin lurrean bizi daitezkeenak bi aldiz ingura.

- olagarroa
- marrazoa
- hartza
- balea

- behia
- hipopotamoa
- itsas xakurra
- igela
- lehoia

3

Zergatik eihartzen da landarea?

Landare batek hazteko, argia, airea eta gatz mineralak behar ditu. Horietarik baten eskasia baldin badu landarea eihartzen da.

4

Zenbat denbora egon zaitezke (iraun dezakezu) edan gabe?

☒ 3 egun

☐ 3 aste

☐ 4 hilabete



5

Non agertu zen lehen biziduna?

- | | | |
|-----------|---|--|
| ● airean | bai ☐ | ez ☒ |
| ● urean | bai ☒ | ez ☐ |
| ● lurpean | bai ☐ | ez ☒ |

6

Ura edukitzen duena ingura ezazu.



tomatea



liburua



lorea




bulegoa




banana



kadira



azieta



xakurra



panpina



eulia



7

Jendeak 9 hilabete segidan iragaten ditu urean. Bere bizitzaren zein garaitan?

Sortu aitzin, amaren sabelean.



URAREN GEOGRAFIA



20 . . ko


1

Nola deitzen da zure etxetik hurbil den ur-bidea? Turrusta, uhaitza, erreka, ibaia ala kanala da?

- Erantzun ezazu bi erranaldi eginez.

2

Uraren norabidea gezi baten bidez erakuts ezazu.



3

Hitz hauek testuan koka itzazu:
ibai – itsasora – uhaitzak – erreken

Atsotitzak erraten duen bezala: “arrain ttipia handituko da.”

Era berean, gure arroko *.uhaitzak*..... juntatzen dira*erreken*..... osatzeko.

Gero, errekek Garona bezalako *...ibai*..... handiak hornitzen dituzte.

Azkenik, ibaiak *...itsasora*..... isurtzen dira.

4

Canal du Midi, ur-bide...

- naturala da bai ☐ ez ☒
- artifiziala da bai ☒ ez ☐
- naturala da baina jendeak moldatua bai ☐ ez ☒

Hitz bakoitzaren definizioa aurki ezazu. Zure eskualdeko adibideak eman:

- Ordokietan gaindi nabil eta itsasora isurtzen naiz:

..... *ibaia* naiz.

- Nire ura gazia da eta bi aldiz egunean mareen fenomenoak jasaten dut:

..... *itsasoa* naiz.

Adibidea: Ozeano Atlantikoa

● Mendian, euri uretatik eta elur urtzetik osatzen
naiz. Nire ura hotza da eta garbia:

uhaitza naiz.

Adibidea: *Santa Graziko uhaitza*

- Zure oinen azpian nago eta balio handiko ur erreserba naiz:

lurpeko ur geruza naiz.

Zazpi orenetarik, itsasoaren altuera aldatzen da.

Nola deitzen da fenomeno hori?

Marea

Zerk eragiten du?

Ilargiaren eraginak du marearen fenomenoa

sortzen.

.....

.....

7

Erreken eta ibaien izenak koka

Aturri Garonake arrearan manan

DORDOINA



1

2

GARONA 

1. *Chlorophyll a* (Chl *a*)





20 . . ko _____

1

Laukiak bete itzazu gurutzeak behar den tokian eman ez. Gurutze bakoitzak erran nahi du han bizi dela.

	Uhaitza	Erreka	Ibaia
Amuarraina	✓		
Perka		✓	
Tenka			✓

3

Nola deitzen dira, aldian aldika ibaian eta itsasoan, batean eta bestean bizi diren arrainak?

Batean eta bestean bizi diren arrainak arrain migratzaileak deitzen dira.



2

Uhaitza, erreka edo aintzira marraz ezazu, hondoa eta bazterrak zehazki eginez. Marrazkia bururatu eta, haietan bizi diren animaliak eta landareak marraz itzazu.

4

Uhaitzetan bizi diren larbak batzuetan
kako edo bentosaz hornituak dira.
Zergatik?

*Uhaitzetan uraren indarra azkarra delako.
Larba batzuk kako hornituak dira harrietan
kokatzeko eta korronteari aurka egiteko.*

5

Nondik dator uren kolore berdea?

Industriek isuri koloragarrietatik? ☐

Alga mikroskopikoetatik? ☒

Urean ikusten diren zeruaren isletatik? ☐

6

Zer jaten dute arrainek?

larbak, intsektuak bai ☒ ez ☐

harea bai ☐ ez ☒

krustazeoak bai ☒ ez ☐

hostoak bai ☐ ez ☒

algak bai ☒ ez ☐





20 . . ko _____

1

Zer herritan bizi zara? Zure herria ur-bide baten ondoan eraikia izan da? Hala bada, zer ur-bide da?

2

Zure ustez, zergatik, lehen, herriak uretik hurbil eraikitzen zituzten?

- > Ura behar zen edateko eta garbitzeko.
- > Arrantza janari iturri bat zen.
- > Ibaietako eta erreketako ura baliatzen zen laborantzako lurren ureztatzeko.

3

Ibai edo ur eremu baten hegian piknikatu eta, zer egiten duzu?

- Edan duzun soda botila urera botatzen duzu. bai ☐ ez ☒
- Zure hondakinak bazterrean uzten dituzu. bai ☐ ez ☒
- Baxerak urean egiten dituzu. bai ☒ ez ☐

4

Idatz ezazu zure iduriko zer egin behar den erreka-
ren eta haren
bazterren ez hondatzeko.

*Errekara ez da etxeko zaborrik ez eta
hondakinik bota behar.*

Errekak ez dira desbideratu behar.

Ur-bideak ez dira lurperatu behar.



ETXEKO
UR

KONTSUMOA

BA OTE DAKIZU
EDATEN DUZUN URA
NONDIK DATORREN...



20 . . ko _____

... ETA NOLA
HELTZEN DEN
ZUREGANA?



1

Nondik dator dutxuluko ura?

Dutxuluko ura ur-begi batetik edo ur dorre batetik lurpeko hodietan dator etxeraino, ur-sare kolektibo, publiko edo pribatu batetik iraganez.

2

Edangarri hitzaren definizioa bila ezazu hiztegian.

3

Hutsuneetan hitz egokiak eman.

**sare – ur dorre – edangarri – ur-begi natural –
lantegi – lurpeko ur geruza – kanal – erreka**

Dutxuluko (txorrotako) ura ...*kanal*...batetik,
...*erreka*... batetik, *ur-begi.natural.* batetik edo
lurpeko.ur.geruza batetik etor daiteke.

Lantegi... batean tratatu ondoren ...*edangarri*...

bihurtzeko,


...*Ur.dorre*... batera bideratua da. Handik
jausten da eta etxeetan sartzen *sare*...aren
hodietatik.

4

Testua marrazki batez ilustra ezazu.

5

Bataz besteko 2 litro ur edaten duzu egunero. Baina ba ote dakizu zenbat kontsumitzen dugun etxeko beste jardueretan?




BAINUA

1 l ur ☐

30 l ur ☐

150 l ur ☒



JANTZI-IKUZGAILUA

50 l ur ☐

100 l ur ☒

500 l ur ☐



DUTXA

40 l ur ☒

100 l ur ☐

300 l ur ☐



KOMUNeko TANGA

2 l ur ☐

10 l ur ☒

50 l ur ☐

6

Kalkula ezazu Eguzkiager familiak egunean kontsumitzen duen ura:

- Pertsona bakoitzak 2 litro ur edaten du.
- Eguzkiager jaunak dutxa bat hartzen du goizetan.
- Eguzkiager andereak bainu bat hartzen du arratsetan.
- Gexan, hauen semeak, dutxa bat hartzen du arratsetan.

$$\begin{aligned} 2 \times 3 &= 6 \\ 40 + 150 + 40 &= 230 \\ 6 + 230 &= 236 \end{aligned}$$

236 litro ur kontsumitzen du Eguzkiager familiak egunean.





LANDAREEK URA
BEHAR DUTE



URAREN ERABILERA INDUSTRIAN ETA LABORANTZAN

BEHIEK
ERE BAI!



20 . . ko _____

1

Zertako du ura laborariak?

Alorren eta landen ureztatzeko
1m² arto: 300 l ur

Baserriko abereen hazteko. Behiek adibidez ur
anitz behar dute (40 litrotik 150eraino)
Behi esnedunen kasuan 5 l ur behar dira 1 l
esneren egiteko.

2

Hiztegian bila ezazu *ureztatu*
aditzaren definizioa.

Ureztatu: landareak, lur eremuak, urez hornitu.

3

Laborantza mota bakoitzari ureztatzeko
molde bat dagokio. Gezien bidez
elkarrekin doazen osagaiak lot itzazu:



Baratzea



Landareak
ontzitan





Arto landa



Ur-kanoia

Ureztontzia

Hodia



4

Turismo nabigazioko ontziak gorriz
ingura itzazu eta salgaien
garraiatzeko ontziak urdinez.

● belaontzia

● arraste-ontzia

● kargaontzia

● bidaiari-ontzia

● kanoa

● gabarra

● luxuzko belaontzi handia

● petrolio-ontzia

5

Ur bazterrean egiten diren jarduera batzuk zerrenda itzazu.

*kanoa
kayaka
arrantza
eihera jarduerak
zentral elektrikoak
bainu jarduerak*

6

Hutsuneak bete itzazu.

**bainatzea — elurrik — bainuetxe —
arrantzatzer**

Iragan udan, Amaiak osagarri-egonaldi bat egin zuen Luchoneko*bainuetxe*... batean.

Ez da igeri egin behar ...*bainatzea*.. debekatua den tokietan.

Peio amu-hariz*arrantzatzer*... joan da aitarekin.

.....*Elurrik*... baldin bada, eskiatzera joan gaitezke.

ETA ERREKA HEGIAN
EGITEN DUGUN PIKNIKA,
ZERRENDAN SAR DEZAKEGU?





20 . . ko _____

1

Hitz hauen definizioak hiztegia bila itzazu.

Definizioak hemen idatz itzazu:

● ur eskasa:

Ura tipitzen delarik gabezia senti daiteke han edo hemen.

● idortea:

Agortea ere deitzen da. Ura xuhurtzen edo ahitzen delarik gertatzen da. Euri gabeziak edo eskasiak agortea ekartzen du.

2

Zer egin behar da etxean ur eskasiaren arriskuan garenean?

*Urik ez sobera kontsumi,
Dutxulua zabalik ez utz,
Dutxa eta bainu gutiago har,
Soropila ez urezta.*



3

Idorte denboran, zer egin daiteke? Zergatik?

● Baratzea ureztatu bai ☒ ez ☐

Urik gabe barazkiak ihartzen dira urik ez bazaie ematen idorte denboran.

● Edan bai ☒ ez ☐

Uraren edatea baitezpadakoa da bizidun gehienentzat.

● Autoa garbitu bai ☐ ez ☒

Autoaren garbitzea ez da baitezpadakoa, beraz, idorte denboretan, urik ez enplega autoaren garbitzeko.

● Bainua hartu bai ☐ ez ☒

Bainua har daiteke baina bakanago. Bainuan dutxan baino askoz ere ur gehiago xahutzen da.

● Dutxa bat hartu bai ☒ ez ☐

Gorputzaren garbitasuna baitezpadakoa da osasunarentzat, beraz, dutxa bat har daiteke egunero.

4

Erabiltzen dugun ura gehienetan ibaitik ponpatua da. Ponpatua izan den leku berean isurtzen ote da? Zure erantzuna azal ezazu.

Ez, ur zikinak ponpa-lekua baino beherago isuri behar dira. Bestela, ponpatutako ura kutsatua eta zikinegia litzateke edateko.

5



Ura ibaian jariatzera utzi behar dela diote. Zergatik? Esplika ezazu.

Ibaia desbideratzen badugu gune horretako oreka ekologikoa hausten dugu.



6

Ura ponpatu aitzin ibaia nolakoa zen erakusten duen marrazkia ingura ezazu.



7

Zer egiten dute arrainek ibaian urik ez delarik gehiago?

Hiltzen dira. bai ☒ ez ☐

Ur ziloetan babesten dira. bai ☐ ez ☒

Uretik kanpo hartzen dute arnasa. bai ☐ ez ☒

Herrestan dabilta ur bila. bai ☒ ez ☐

Lo egiten dute. bai ☐ ez ☒





URA EZ DA
BALIABIDE
AGORREZINA.



KONTSUMOA

GUZIEN ESKU

ONGI BEGIRA
DEZAGUN!



20 . . : _____

1

Testua osa ezazu:

baliabide – ezinbestekoa – erabilpen

Ura denek babestu behar dugun ...*baliabide*.....
baliosa da.

Jendeak edaten du eta ...*erabilpen*.....anitzetan
baliatzen du. Beraz ...*ezinbestekoa*..... zaigu.
Ezinbestekoa... zaie animaliei eta landareei ere.

2

Baliabide hitzaren erran-nahia
hiztegian bila ezazu.

baliabide: zerbaiten lortzeko bitartekoa izan
daitekeen ahalbidea edo tresna. (Elhuyar)

8 LETRAREKIN
HASTEN DA, BALIOSA
BEZALA!



3

Erran-nahi hurbila duten hitzak
kolore beraz ingura itzazu.

● aberastasun

● ondasun

● pobrezia

● eskas

BA... PUTZUKO
URA BALIA HORTZEN
GARBITZEKO?



4

Erranaldien osatzeko, zatiak lot itzazu.

Hortzak garbitzen
ditudanean,

Jantzi-ikuzgailua
ahal bezain guti
ibilarazi behar da

Urik ez xahutzeko,

Ahalaz, hobe da
baratzeko landareen
urezkatzea

● ura galtzen
duten dutxuluak
konpondu behar
dira.

● dutxulua
hesten dut.

● putzuko
ura baliatuz
dutxulukoa
baino.

● erdi betea
delarik.

5

Zuk ere errazu zer egin behar den uraren ez xahutzeko.

Ura galtzen duten dutxuluak ahal bezain laster konpondu.

Ez sobera bainu hartu.

Soropilak idorte aldietan ez ureztatu.

Jantzi-ikuzgailua betetik delarik bakarrik martxan ezarri.



LEHEN, EZ ZEN
BERDIN,



20 . . ko

UR ERABILERAK

HISTORIAN ZE HAR

URA EZ ZEN
DUTXULUTIK
HELDU.



1

Zure adinean, zer egiten zuten aitatxi-
amatxiek ur beharretan zirelarik?

*Ur beharretan zirelarik, aitatxi-amatxiek ura ekartzen
zuten edo errekatik, edo iturritik, edo putzutik.*

2

Bai ala ez?

Gaur egun iragan mendeetan baino ur gehiago
kontsumitzen dugu.

bai ☒

ez ☐

Edateko ura beti banatua izan da etxeetan.

bai ☐

ez ☒

Erreketatik ponpatu ura, lantegi batean tratatua
izan da beti, edateko on izateko gisan.

bai ☐


ez ☒

3


Zein da hiru marrazki hauen arteko
lotura?



urketaria



akueduktua



hodia

Guziak uraren garraiatzeko baliatuak dira.

4

Edateko uraren hornitzeko lehen sareak agertu ziren...

... hirian?

bai ☒

ez ☐

... baserrian?

bai ☐

ez ☒


5

Zertako dira putzuak?

Putzuak eginak ziren uraren lurpetik biltzeko. Lurpeko ur geruzaren heineraino joanez ponpa baten bidez ura lurrazalera jalgiaztzen zen.

EZ BAKARRIK
TXANPONEN
BARNERA
BOTATZEKO!






20 . . ko _____

1

Bainuontzia edo komuneko tanga husten duzunean, nora doa ura?

Ura sartzen da garbitze sarean hodi batzuen edo estolden bidez. Garbitze sarearen puntan dago araztegia. Araztegian ura garbitua da eta ondotik errebara edo ibaira isuria.

Zure erantzunaren ilustratzeko marrazki bat egizu.



2

Kutsadura hitzaren definizioa hiztegian bila ezazu.

Substantzia kimikoek edo organikoek eginiko kalteak.

3

Hirietatik datozen ur zikinetako kutsadura kentzen duen lantegia nola deitzen da?

- | | | |
|------------------------------------|---|--|
| Zentral nuklearra | bai ☐ | ez ☒ |
| Araztegia | bai ☒ | ez ☐ |
| Edateko ura ekoizten duen lantegia | bai ☐ | ez ☒ |



4

Estoldak bestela izenda ditzakegu.
Nola?

● ur zikinen garraiatzeko hodi sarea



● putzu beltza




● araztegia



5


Ura kutsatzen duten jarduerak gorriz
ingura itzazu.




Bainua hartu




Egunkaria irakurri




Arropa garbitu



Tindatu



Landareak ureztatu



Errautsa kendu



Erratz zarpailaz garbitu



Zakarrontzia hustu

BERAZ, KUTSATZAILE
NAIZ?





INDUSTRIA ETA LABORANTZA ISURKIAK

... ZURE ETXEAREN
ONDOAN



20 . . ko

BADEA
LANTEGIRIK?



1

Lantegi batek baimenik gabe bota
ditzake bere ur zikinak erreara?


Ez.

Zergatik?

Lantegiko ur zikinak kutsatuak dira. Kutsadura
errekan heda ez dadin lantegiek ur zikinak
erreara isuri aitzin tratatu behar dituzte.

2

Lantegia bere isurkiari lot.



3

Etetik kanpo ura kutsatzen duten
jarduerak zerrenda itzazu.

Gehienetan, laborantzan baliatzen diren
ongailuak kimikoak dira.
Bestalde laborantzan
pestizidak ere baliatzen
dira eta erreken kutsatzeko
lanjera sortzen dute.
Lantegietako isurkiak ere
kutsatuak dira.

Erreka baten kutsadura
izan daiteke:

- kimikoa
- bakteriologikoa
- termikoa

BASERRIAN
BIZIZ GEROZ,
FITE ASMATUKO
DUZU!



4

Zaldi batek egunean 35 kg gorotz egiten du.
Zenbat gorotz egingen dute zalditegi bateko 20 zaldik egun batean?

$$35 \text{ kg} \times 20 = 700 \text{ kg}$$

5

Laborari batek behitegia eta arditegia garbitzen ditu. Orotara 215 kg ongarri biltzen ditu. 79 kg arditegitik datoz. Zenbat kilo bildu ditu behitegian?

$$215 \text{ kg} - 79 \text{ kg} = 136 \text{ kg}$$



KUTSADURAK
EGIN KALTEAK IKUS



ISURKIAK

INGURUNE NATURALEAN

ZURE
INGURUNEAN.



20 . . ko _____

1

Zure ustez, zer gerta liteke
ustekabeen lantegi batek ur zikinak
errekara isurtzen balitu?


*Lantegiak ustekabetarik
ur zikinak isurtzen balitu
erreka kutsatuko luke.*

USTEKABETARIK
GERTATU OTE DA?



2

Marrazki honetan kutsaduraren
norabidea erakuts ezazu gezi baten
bidez .



3

Ur kutsatua izan daiteke:

- | | | |
|-------------------|---|--|
| - uherra | bai ☒ | ez ☐ |
| - gardena | bai ☒ | ez ☐ |
| - usain txarrekoa | bai ☒ | ez ☐ |
| - edateko ona | bai ☐ | ez ☒ |

4

Kutsadura sobera badelarik, zergatik
arrainek ezin dute gehiago arnasarik
hartu?


*Kutsadura handia denean, bakterioek oxigeno
guzia kontsumitzen dute eta arrainek alde egiten
dute edo arnasarik ezin hartuz hiltzen dira,
oxigeno eskasez.*

EZ NINTEKE
HOR LAKET!







5

Marrazkiari begiratzuz, errekan izan ohi den guzia berdez ingura ezazu. Kutsaduraren seinaleak aldiz gorriz.



6

Errekaren kutsatzaileak gorriz ingura itzazu:





EZ DA HAINBESTE
GOSTATZEN



20 . . ko _____

DENEN ARTEAN ISURKIAK GUTI DITZAGUN

... GUTIAGO
KUTSATZEA!



1

Bai ala ez

- Zernahi botatzen ahal da harraskara.

bai ☐

ez ☒

- Isurtzen duzun uraren tratamendua ordaindu behar da.

bai ☒

ez ☐

- Estolda-ziloa zakarrontzi bat da.

bai ☐

ez ☒

2

Zure burasoek autoko olioak berritzen dute. Erabili olioak estoldetara bota dezakete? Nora bota behar dute?

Autoko olioak ez da estoldetara bota behar baizik eta ontzi batean bildu eta auto-garaje batera eraman. Han upel bereziak badituzte olioaren kontserbatzeko eta ondotik berriz tratatua izanzen da.

3

Zer egin behar duzu higatuak diren pilez?

Higatuak diren pilez ezin daiteke zernahi egin. Ez dira estoldetara bota behar. Hondakinak bereizten dituzten hondakindegia batera eraman behar dira. Jakin behar da ere, saltegi batzuetan ontzi egokiak ezarri dituztela pila higatuen biltzeko. Erosketen egitera joatean ez ahantz pila higatuen eramatea.

4

Ibai hegian ibiltzean, arrain hilak ikusten dituzu. Zer egin behar duzu?

- ☒ Auzapeza edo suhiltzaileak abisatu.

- ☐ Deus ez egin.

- ☐ Arrainak bildu, gero jateko.

ARGAZKI BAT
HAR DEZAKEZU ETA
EGUNKARIARI IGOR.



5

Erreken ez kutsatzeko egin
dezakezun guzia zerrenda ezazu.

- Errekak ez ditut desbideratzera utzi behar.
- Erreka ez dadin zakarrontzi bat bilaka, ez dut deus botako hara.
- Erreka batean kutsaduraren seinaleak aurkituz geroz, suhiltzaileak edo auzapeza deitzen ditut.
- Erreka garbitze jardueretan parte hartuko dut.
- Ur gutiago kontsumituko dut etxean, ur zikin gutiago izan dadin tratatzeko.



LABORANTZA ISURKIAK HISTORIAN ZEHAR



20 . . ko _____

1 Zer ziren lehenik eraiki: estoldak ala araztegiak?

Hirietan lehenik estoldak eraiki zituzten, auzoetan etxez etxe ur zikinen biltzeko eginak ziren kanal edo lurpeko hodi batzuk ziren. Sare bat eginez bazoazin hurbileko erreka, ibaira edo itsasora.

2 Araztegiak hiri guzietan badirea?

Hirietan bai, baina, herri guzietan oraindik ez. Frantziako biztanleriaren % 80 araztegi bati lotua zaio garbitze sare baten bidez.

3 Zure adinean aitatxi-amatxiek isurtzen zituzten ur zikinak...

- ☐ araztegietan tratatuak ziren.
- ☒ erreka batera zuzenean isuriak ziren.
- ☒ hobi septiko batean bilduak ziren.

4

Testua artoski irakur ezazu.

Lehen, baserrialdean, ez zen dutxuluko urik. Putzura edo iturrira joan behar zen urketa.

Garbitzeko, pitxerra eta lozazko ontzia baliatzen ziren.

Komunak, maizenik, etxetik kanpo lurrean egin ziloa baizik ez ziren.

Bokata egin behar zutenean, emazteak herriko latsarrira joaten ziren.

Neguan gerta zitekeen ura hormatzea etxearen barnean: orduan suaren ondoan ezarri behar zen urtarazteko!



	Lehen nola egin behar zen...	Gaur egun nola egin behar da...
... uraren ukaiteko?	<i>Putzura joan.</i>	<i>Dutxulutik har.</i>
	<i>Iturrira joan.</i>	
... garbitzeko?	<i>Pitxerra baliatzen zen.</i>	
	<i>Lozazko ontzia ere.</i>	
... komunetara joateko?	<i>Etxetik kanpo lurrean egin zilo batean.</i>	
bokataren egiteko?	<i>Herriko latsagian.</i>	<i>Jantzi-ikuzgailua baliatzen da kasik etxe guzietan.</i>